



Gurutzalditik...Euskaraldira!

Hilaren 18an hasiko den Euskaraldira begira, herritar ugarik aholku bikainak jaso dituzte egunotan, guruzaleen eskutik / 8-9

TXINTXARRI

'Millenial'-etaz, oholtzan

Formol Laborategiak 'Album' antzezlanak dakar herrira. Bertako sortzaile eta aktore Intza Alkain elkarriketatu du TXINTXARRI-K / 6-7

Herriko merkataritza hauspotzen jarraitzeko, kontsumo bonuen kanpaina abiatuko du udalak / 2

Lasarte-Oriaren historia, soziologia eta hirigintza ereduak ezagutzeko ibilaldia antolatu dute / 4

Herritarren kontzientzia piztu nahi du udalak; jarduera ugari egingo ditu Azaroaren 25aren bueltan / 5

Atleten harrobia hazten ari da Lasarte-Orian; kirolariak txapelketen denboraldirako prestatzen ari dira / 11

LOKEko judoek emaitza bikainak lortu dituzte Gipuzkoa, Euskadi eta Espainiako lehiaketetan / 12

Aldizkari hau eta kartel bat jasoko dituzu postontzian, biak hartu!



EUSKARAREN MARATOIALDIA

eta ekin!

HASIERA EKITALDIA

Azaroaren 18an Manuel Lekuona Kultur Etxean 19.00etan
Txapa jartze kolektiboa egingo dugu!

EUSKARALDIA

azaroaren 18tik abenduaren 2ra



Agustin Valdivia eta Sozioekonomia batzordeburu Nuria Fernandez, kanpaina aurkezteko agerraldian. TXINTXARRI

Herriko merkataritza hauspotzen jarraitzeko

Kontsumo kanpaina abiatuko du udalak, hirugarren urtez. Hilaren 14tik 30erako epea izango dute herritarrek bonuak erreserbatzeko, eta erabiltzeko, aldiz, hiru asteko tartea; hilaren 14tik, abenduaren 4ra. Herriko merkataritza hauspotzea dute helburu

Txintxarri

Lasarte-Oriako merkataritza, zerbitzu pertsonal eta ostalaritza hauspotzen jarraitzeko asmoz, kontsumo bonuen kanpaina iragarri du udalak. Egitasmoa abiatzen duen hirugarren urtea izango da aurtengoa, eta prentsaren aurrean eman dituzte argibideak udal ordezkariak.

Iaz bezala, aurtengo bonuak ere atari digital baten bidez eskuratu beharko dituzte interesdunek; honako helbidea prestatu dute horretarako: www.lasarteoriabonoak.eus. Bertara sartzen direnek erregistroa egin beharko dute lehenik. Ostean, egitasmoarekin bat egin duten saltokien zerrenda agertuko zaie. Horrela, bonuen bidez erosketak egin nahi duten establezimendua aukeratu dute, eta bertan erabil nahi dituzten txartel kopurua zehaztu. Bezero bakoitzak gehienez hamabi bonu eskuratu ahal izango ditu, baina komertzio bakoitzean ezingo ditu sei baino gehiago erabili. Aurten, gainera, bonuak ez dira

eskuratu ahal ordainduko. Erreserbatuta geratuko dira, eta erosketak egiteko unean erabiliko dira; erosketak balioaren erdia zuzenean diruz ordainduko diote erosleek dendariari. 10 euroko balioa izango dute; horietatik 5 euro bezeroek jarriko dituzte euren poltsikoetatik. Alde hori (egitasmoaren kostuaren erdia), udalak hartuko du bere gain. Horretarako, 100.000 euro bideratuko dituzte kanpainara eta beste erdia, herritarrek erosketak bonuen diruarekin osatuko da. Hortaz, orotara 200.000 euroko "diru mugimendua" sortuko da herriko merkataritza, zerbitzu eta ostalaritzan.

Erreserbak modu telematikoan egiteko aukerarik ez dute herritarrek, Mirentxura joateko aukera izango dute, goizez (10:00etatik 14:00etara); bertako langileek lagunduko diete tramitea egiten.

Udal ordezkarien jakinarazi dute egunotan banatuko dutela, etxez etxe, kanpainaren informazioa biltzen duen eskuorria.

Tasak %2 igoko dira 2023ko ordenantzetan

Ezohiko saio bat egin du udal korporazioak 2023ko ordenantza fiskalen proposamena aztertzeko. PSE-EEK soilik bozkatu du alde, abstenitu egin dira EAJ-PNV nahiz ELOP eta aurka egin du EH Bilduk. Plenoan eztabaidatutako emendakin bakar bat ere ez dute onartu

Txintxarri

Ordenantza fiskalen igoera "neurtua" onartu du udal korporazioak, Agustin Valdivia alkatearen hitzetan. Ezohiko saioa egin du, txostena bozkatu eta horri aurkeztutako zenbait emendakin eztabaidatzeko. Datorren urteko urtarrilaren lehen indarrean sartuko den proposamenak aurrera egin du, PSE-EEren aldeko bozkekin. EAJ-PNV nahiz Elkarrekin Lasarte-Oria Podemos (ELOP) abstenitu egin dira, eta aurkako iritzia eman du EH Bilduk.

Tasa ia guztiak %2 garestiagoak izango dira 2023an. Aurrezki Kutxen Fundazioak (FUNCAS)

egindako aurreikuspenak hartu izan ditu oinarri udal gobernuak historikoki, baina ez da hala izango datorren urterako ordenantza fiskaletan, eragile horrek estimatu baitu Kontsumo Prezioen Indizea (KPI) %7,5 igoko dela. "Egia esanda, tasak zertxobait gehiago igo beharko genituzke, 2023an garestitu egingo direlako udalak ordaindu beharreko gauza ugari, baina igoera neurtu bat proposatu dugu, herritarren egoera zein den kontuan izanda. Eskerrak eman nahi dizkiet EAJ-PNVri eta ELOPi, proposamena onesteko aukera emateagatik", adierazi du alkateak.

Oposizioaren balorazioak

Horren aurretik, oposizioko alderdiek bozkaturakoa azaldu dute. Hala, ELOPeko bozeramaile David Aresek zehaztu du "arrazoizkoa" iruditzen zaiela ordenantzak %2 garestitzea, kontuan izanda FUNCASEk proposaturakoa baino baxuagoa dela. Hala ere, udal gobernuaren jarduna kritikatu du: "Ez gaude ados gaia jorrazteko moduarekin, berandu ekarri baitu udal gobernuak gaia mahai gainera, eta ez dugu analisi sakonik egiteko astirik izan: aurkeztu ditugun emendakinek aldaketa txiki batzuk besterik ez dituzte planteatzen".

Ildo beretik mintzatu da EAJ-PNVren ordezkari Jon Antxordoki. "Udal gobernuak, eta ez ogasun kontuetan bakarrik, ohitura hartu du gauzak berandu egiteko, taktika bilakatu du: hamabost egun natural, hamar lanegun izan ditugu emendakinak prestatzeko. Urte batean, salbuespen gisa, gerta daiteke, baina ez behin eta berriro. Gero eta urrutiago gaude". Horrekin batera, adierazi du jeltzaleek uste dutela udalak ordenantza fiskalak izozteari aurre egin diezaiokela, baina ez daudela %2 igotzearen aurka. Halaber, lan mahaiak sortzearen premiaz hitz egin du: "Bi legealdi daramatzagu zain".

"Ados egon gintezke ordenantzetakoa tasak %2 garestitzearekin, baina azterketa sakoagoa eginda, ikusi dugu udal gobernuak gauzak kudeatzeko ezintasuna erakutsi duela beste behin", adierazi du EH Bilduko zinegotzi Esti Garmendiak. Norabide horretan, gai hori jorrazteko lan mahaiak eratzearen beharra aldarrikatu du, "datu gehiago izan eta ordenantza landuagoak

garatzeko". "Noski, hori baino lehen, norabideak finkatu behar dira, lehentasunak zeintzuk diren zehaztu eta horien gainean lan egin". Garmendiaren irudiko, udal korporazioak "orokortasunean" onetsi ditu ordenantzak, baina ez da "xeheetasunetara iritsi".

Alderdien emendakinak

- **ELOP:** hutsik dauden etxebizitzien Ondasun Higiezen gaineko Zerga (OHZ) %50etik %100era igotzea.
- **EAJ-PNV:** zenbait tasa izoztea: hondakinena, urarena eta estolderiarena. Sanpedroetan barrakak jartzen dituztenek berdin ordaintzea metro karratuko astegun zein jaiegunetan.
- **EH Bildu:** irabazi asmorik gabeko eragileak salbuestea teknikariei ordaintzeaz eta ikuskizunetako sarreraren gaineko tasak pagatzeaz.



Udalbatzarreko talde politikoetako ordezkariak, Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldeko kideak eta herritarrak izan dira ekitaldian. TXINTXARRI

Elkarrizketa espazioen beharraren aldarria

Memoriaren egunarekin bat egin du Lasarte-Oriak. Udal bizikidetza mahaiak herritarren elkarbizitza taldearekin batera ekitaldi xume bat egin du Askatasunaren parkean. Elkarrizketa guneak eta enpatiaz entzutearen garrantzia azpimarratu dute adierazpen instituzionalean

Txintxarri

Euskal Herrian eta Lasarte-Orian motibazio politikoko indarkeria kasuak gogoan izan zituzten, hilaren 10ean, Memoriaren Egunean. Askatasunaren parkean dagoen *Biharraren oroipena* eskulturaren inguruan ekitaldi xume bat egin zen eta Lasarte-Oriako udalbatzarreko kideak, herriko bizikidetza taldeak eta hainbat herritarrek bat egin zuten hitzorduan.

Memoria historikoaren garrantzia nabarmentzeko, Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldeak osatutako *Bizikidetzarako memoria* erakusketako Lasarte-Oriako indarkeria kasuen panelek atondu zuten plaza.

Agustin Valdivia alkateak udal bizikidetza mahaiaren adierazpen bateratua irakurriz eman zion hasiera ekimenari.

Elkarrizketarako espazioak

Motibazio politikoko indarkeriaren ondorioz, giza eskubideen urraketak eta beste sufrimendu mota batzuk jasan dituzten pertsona guztiei elkartasuna adierazteko mahaiak Memoriaren egunarekin bat egiten zuela azaldu zuen lehenik.

Eta udalbatzarreko talde politikoak osatzen duen mahaiak sufrimendu mota guztiak aitortzeko duen borondatea berretsi eta biktima guztiarentzat egia, justizia eta erreparazioa aldarrikatu nahi duela duela nabarmendu zuen.

Era berean, Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldeko kideen presentzia nabarmendu eta euren egindako lanarengatik esker hitzak eskaini zizkien: "Herritar taldea motorretako bat izan da herriko bizikidetzan, biktimekin eta motibazio politikoko ondorioz sufrimendu anitzak pairatu dituzten bizilagunekin gauzatu duten lanketa baliagarriatik".

Horregatik, enpatiaz entzuteko espazioen boterea aldarrikatu eta desberdinen arteko elkarrizketa espazioen garrantzia azpimarratu zuen alkateak udal bizikidetza mahaiaren izenean:

**EKITALDIRA
BILDUTAKO GUZTIEK
'ASKATASUNA
ZERTARAKO?'
KANTATU DUTE**

"Biktimen, sufritu duten pertsonen, eta herriko bizilagunen arteko elkarrizketarako espazio seguruak ezinbestekoak dira gure iraganera begiratu, gertatutako giza eskubideen urraketa guztiak eta sufrimenduak mahai gainean jarri eta irakurketa partekatatu bat egiteko, giza eskubideen markoa oinarri hartuz eta herriko pertsona desberdinen testigantzei bere lekua emanez".

Aurrerapausoak eman eta iraganen gertatutakoaz ikasteko hitz egin, elkar entzun eta elkar ulertzen saiatu behar dugula ere adierazi zuen, "nahiz eta erabat ados ez egon bestearekin".

Lore eskaintza

Hitzei bost minutuko isiluneak eman zion jarraipena, eta, ostean, lore eskaintza egin zuten: plazan ezarrita dagoen plakaren aurrean -EH Bilduren kasuan, hiru hilarritotemetako batean- arrosa zuriak jarri zituzten.

Ahots doinuek eman zioten amaiera ekimenari. Bildutako guztiak Lourdes Iriondoren *Askatasuna zertarako?* abestia kantatu zuten.



NEURE KABUZ
JEXUX ARTETXE

Buruntza

Jakina denez, gure herrian badago tradizio ukatzaile bat, edozein gauzaren aurreko aurkaritzan erosoago agertzen dena jarrera ekarkor eta konstruktiboetan baino. Desegintzan askoz trebeagoa izan baita egintzan baino. Ez da denbora asko garai bateko ezker abertzaleko buruzagietako batek goraiatu duela "ezetza", azken 60 urteetako euskal gertakizun inportanteenen ezaugarria bailitzan. Bere esanetara, ezker abertzaleak emandako "ezetza" horietan dago "katoia", Euskal Herriaren alde jokatu nahi dugun guztiok jarraitu behar omen duguna. Baina, gehienok oso gogoan dugu zeinen zorizaiztoko gertatu zitzaigun aipatu katoiarenean ezarpena. Hemen, "ezetza" indarkeriaz bideratu da, gorrotoa eta heriotza ekarriz.

Garai batean, ezaren gudaz baietza sortzeko ilusioa zuten gazte batzuek. Dena dela, baziren amets handi hark ekar bezakeen tragediaz berehala jabetu zirenak. Larrutik ordaindu dugu ondoren gertatu den izugarrikeria. Alabaina, ez dira gutxi luzaroan ukazioaren kiribiletik ezin ateraz aritu direnak. Lehen esan bezala, minaren eta sufrimenduaren balantze larria utziz.

Ezaren gudatik ezin dela baietzik eraiki argi ikus daiteke Buruntzan. Gurutzea bota dute, eta han bertan dago eroria. Ezetza zaleen plana, ordea, aurkariaren eraispenean amaitzen da. Ez dira gauza izan eraikitzeko. Egindako birrinketa ezintasun horren adierazle argia da. Eskerrak baietzaren aldekoak ere badirela gure bailaran. Gurutze bakarra zegoen tokian, orain bigurutzedun ikurrina zutitu dute herri honek antsiatzen duen baietzaren sinbolo gisa.

Jalgi
kafé
antzokia

**Jalgi alokatzen
du Ttakun Kultur
Elkarteak**

**Interesa baduzu jarri gurekin
harremanetan azaroaren 20ra arte**

**Geltoki kalea 4, beheka bulegoan
Tel: 943-37 14 48**

**09:00etatik 13:00etara (astelehena ezik) eta
16:00etatik 18:00etara (ostirala ezik).**

ttakun@ttakun.eus

Gure herria sakonago ezagutzeko ibilaldia

Danok Kide elkartearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Herritarren ibilaldia antolatu du Impact Hub Donostia kooperatibak larunbat honetan, hilak 12, 10:00etatik 14:00etara. Egitasmoa doakoa da, eta partaideek ez dute izena eman behar

Iñigo Gonzalez Sarobe

Lasarte-Oriako bazterrak, historia eta hirigintza eredu sakonago ezagutzeko jardura bat antolatu du Impact Hub Donostia kooperatibak, Danok Kide elkartearekin eta Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean. Bihar egingo du, larunbatez, hilak 12. Euskotren geltokian jarri dute hitzordua antolatzaileek, 10:00etan. Eragile horretako kideetako bat den Victor Aspe arkitekto donostiarrarekin elkartu da TXINTXARRI, ekimen horri buruz gehiago jakiteko.

"Ez da bisita gidatu bat izango", azpimarratu du Aspek. "Kontua ez da gida batek lau orduz azalpenak eman eta herritarrek horiek entzutea; haien parte hartzea sustatu nahi dugu, guk baino askoz gehiago dakitelako Lasarte-Oriaz". Azaldu duenez, jardura doakoa da eta horretan parte hartu nahi dutenek ez dute izenik eman behar. "Librea da erabat: etor zaitez nahi duzuean,



Herritarren ibilaldia Euskotren geltokian hasi eta Okendo plazan bukatuko da. IMPACT HUB

joan zaitez nahi duzuean, eta hitz egin ezazu nahi duzunari buruz". Aspek adierazi duenez, helburuetako da "goiz atsegin bat" igarotzea partaide guztiek, gure herriari buruz ikasi bitartean. "Jardura ludikoa izateaz gain,

uste dut herritarrek parte hartzeko tresna bat dela".

Euskotrenetik, Okendoraino

Impact Hub kooperatibako kideak zehaztu duenez, hamabost mugarriko ibilbidea prestatu dute,

Danok Kide elkartearekin batera. Ereku hauek denak ezagutzeko aurreikusitakoak dira: Euskotren geltokia, Michelin, Hipodromo zubia, Ama Brigitarren komentua, ibaiertza, Zumburu parkea, autopista azpiko bidea, Karmengo kapera, Txartel hotela, San Francisco eta Plazaola bideak, Sasoeta, Green plaza, Froilan Elespe parke botanikoa, Mirentxu, Tximistarreta parkea, Kale Nagusia eta Okendo plaza.

Hori guztia, printzipioz behintzat, lau ordutan. "Ibilbide zehatz bat proposatu dugun arren, herritarren batek beste eremu edo guneren batean berri ematen badigu, hara joango gara", aurreratu du Aspek. "Behin eta berriro esango dut: interesgarriena da partaideek beraiek kontatzea haien bizipen eta istorioak". Arkitektoak onartu du ikus-entzuleak "zirikatzea" gustatzen zaiola: "Guneak buruzko galdera eta proposamenak egiten dizkiet, haiek zer pentsatzen duten jakiteko".

Jane Jacobs

Hirigile estatubatuar-kanadiar bat izan zen Jane Jacobs (Pensilvania, AEBak, 1916-Toronto, Kanada, 2006). Hura zendu eta urte pare batera, lagun izan zituenak ibilaldiak antolatzen hasi ziren, Jacobs gogoratu eta hark aldarrikatutako kontzeptuak (hirigintzari lotutakoak, batez ere) lau haizetara zabaltzeko. Ipar Amerikan hasi zena azkar zabaltzen mundu osora, baita

Euskal Herrira ere. Azken urteetan Impact Hub arduratzen ari dira txango horiek egiteaz, Jacobsen filosofian oinarrituta: herrien historia eta ezaugarriak buruz gogoeta egitea, hirigintzaren ikuspuntu kritiko batetik. Donostiako auzo ugarietan aurrera eman dituzte jarduerak, bertatik ateratzea erabaki zuten arte: Pasaian izan ziren iaz, eta Lasarte-Oriara etorriko dira bihar.

Bidelagun izateko prest

Lehen aipatu bezala, Lasarte-Oriako ibilaldia Danok Kiderekin batera prestatu dute Impact Hubeko lagunek. "Saiatzeko gara herriaren herriko elkartearen atea jotzen, haien bizilekuari buruz dakiten guztia kontatu diezaguten". Horrez gain, Aspek azpimarratu du "izugarri" gustatuko litzaikeela Lasarte-Oriako eragileren batek bere paseo propioa antolatzea, egokien ikusten duten perspektibatik: feminismoa, ekologia, soziologia, geologia, eta abar. "Bidelagun izateko prest gaude".

Aspek lasarteoriatarak animatu ditu biharoko hitzordura bertaratu eta Lasarte-Oriari buruzko ikuspegia ematera.

ASPE: "NAHI DUZUEAN ETORRI ETA JOAN, ETA HITZ EGIN EZAZU NAHI DUZUNARI BURUZ"

Arkaitzerrekara joango dira, bertako egoera ezagutzera

Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak ekimenarekin bat egin du eta herritarrek gonbidatu ditu parte hartzera

Txintxarri

Erraustegiaren Aurkako Mugimenduak antolatuta, Usurbildik nahiz Zubietatik zutabe bana joango da Arkaitzerrekara bihar, larunbata, hilak 12, errioren egoera zein den ikustera. Lasarte-Orian Aire Garbia plataformak dei egin die herritarrei zubietarren zutabearekin bat egiteko. 10:30ean abiatuko dira, Zubietako plazatik.

Erraustegiaren azpitik igarotzen da Arkaitzerreka. Azpiegitura horrek isurtzen dituen jarioen ondorioz (amonioa eta kloruroak,

besteak beste), 2020ko maiatzean hainbat arrain eta aingiria hilik azaldu ziren errioren uretan, eta aurtengo uztailetik "apartsu eta gorritsu" dagoela jakinarazi du Usurbilgo Noaua aldiakariak. Gipuzkoako Fiskaltzak ikerketa bat ireki zuen uztailearen 14an erreka horretan gertatzen dena argitzeko, GuraSOS plataformak adierazi zuenez. Orduko horretan, Gipuzkoako Hondakinen Kontsultazioak (GHK) gezurtatu egin zuen erraustegitik isuritakoek Arkaitzerreka kutsatu izana.



2020ko maiatzean animalia ugari azaldu ziren hilik Arkaitzerrekan. NOAUA

Erreka horretan gertatutakoa oraindik argitu ez denean, Noaua-k berak urriaren 28an aurreratu zuenez, GHK-k baimena eskatu dio Ura agentziari ponpaketa sistema bat eraikitzeko Arkaitzerrekan,

erraustegitik jaisten diren urak saneamendu sistemarekin konektatzeko. GuraSOSek salatu du Monpaseko hustubidetik irtengo lirakeela ur horiek, Donostiako Zurriola hondartzaren ingurura, "dioxina

eta beste osagai kutsakorren arazketarik gabe, Loiolako Hondakin Uren Araztegiaren (HUA) ezarritako sistema ez delako egokia hori egiteko".

Manifestazio bat Donostian

Arkaitzerrekan eta oro har erraustegiak eragindako egoera guztiak salatuz, GuraSOSek manifestazio bat antolatu du hilaren 27an, igandean, Donostian, 12:00etan. *Orain bai, gelditu! Diálogo, solución* lelopean, Kursoaletik abiatuko dira manifestariak, eta Zurriola hondartza parera joango dira. Egunotan eragile zein norbanako ugariaren babesa jasotzen ari da ekintza hori. Aire Garbiak ere atxikimendua adierazi dio, eta lasarteoriatarak animatu ditu bertan parte hartzera.

Gozatu bitartean, kontzientzia eragiteko

Jarduera ugari prestatu ditu Lasarte-Oriako Udalak, hilaren 25eko Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Eguna harira. Egitaraua hilaren 12tik abenduaren 1era bitartekoa izango da, "adin tarte guztietako herritarrentzat" prestatutakoa

Txintxarri

Udaleko Berdintasun teknikari Irati Olaetxea, Agustin Valdivia alkatea eta Emakumeen Zentroko teknikari Maite Iglesias arduratu dira Azaroaren 25erako prestatutako jardueren nondik norakoak emateaz. Valdiviak nabarmendu du udalak "gorriz markatuta" izan ohi duela egutegian egun hori, "beharrezkoa" delako "herritar guztien artean indarkeria mota horren aurka borrokatzea".

Horretarako, jarduerak ugari prestatu dituzte. Alboko taulan kontsulta ditzakezue gehienak, baina badaude gehiago: hilaren 29an, asteartez, berdintasuna eta irakurzaletasuna jorratuko ditu Maria Garcia Loderok, 6 eta 8 urteko zenbait haurrekin batera, 17:30ean, hitzaldi aretoan. Egun berean, DBH 3. eta 4. mailako ikasleek *Lilithen aroak* antzezlan ikusiko dute, kultur etxeko auditorioan, 09:00etan. Azkenik, abenduaren 1ean, ostegunez,



Ezker-eskuin: Olaetxea, Valdivia eta Iglesias, egitarauaren aurkezpenean. TXINTXARRI

Sálvese quien pueda, Canal 38 antzezlanaren emanaldia egingo du Makelur konpainiak, auditorioan, 19:30ean, gaztelaniaz. Sarrerak 3 euro balio dute.

Bestalde, Hipodromo zubian *Erresperez jokatu* banderolak jarri dituzte, hilaren 31ra arte. Bidenabar, elkarretaratzearen egunean zapata gorriak jarriko

dituzte Okendo plazan, aurtengo eraiketa matxistak salatzen, eta "biribil moreak" erabiliko, Lasarte-Oria nahiz EAeko estatistiken berri emateko. Horrez gain, herritarren kexa, ideia eta iradokizunak jasoko dituzte, enparantza horretan bertan jarriko duten kutxa more baten bitartez.

Egitarauko jarduerak

Hilak 12, larunbata, 10:30-13:30 eta 14:30-17:30

- **Autodefentsa feminista tailerra.** Emakumeen Zentroan, elebitan: atal teoriko eta praktiko bana izango ditu. Emagin elkarteko kideek emango dituzte saioak. Izena emateko: 943-36 39 58, emakumezentroa@lasarte-oria.eus edo, fisikoki, zentroan bertan.

Hilak 17, osteguna, 17:30etik 20:00etara

- **Argazki eta ahalduzko tailerra.** Antonio Mercero gunean, euskaraz. Idoia Telleria argazki lasarteoriatarrek emango du ikastaroa. Izena emateko: 943-36 39 58, emakumezentroa@lasarte-oria.eus edo, fisikoki, zentroan bertan.

Hilak 23, asteazkena, 17:30ean

- **'Mujeres mayores, el impacto del machismo en sus vidas' hitzaldia.** Biyak Bat egoitzan, gaztelaniaz. ONEKA Euskal Emakume Pentsionisten Plataformaren eskutik.

Hilak 24, osteguna, 19:00etan

- **Beldur Barik lehiaketako sarien banaketa.** Kultur etxeko hitzaldi aretoan, elebitan.

Hilak 25, ostirala, 12:00etan

- **Emakumeen Aurkako Indarkeriaren Kontrako Egunean, elkarretaratzea.** Okendo plazan.

Hilak 25, ostirala, 20:00etan

- **'Luze edo motz' antzezlan.** Kultur etxeko auditorioan, euskaraz. Idoia Torregaray eta Mirari Martiarenaren eskutik. Sarrerak: 3 euro.

Hilak 26, larunbata, 17:30ean

- **'Pronoia' antzezlan.** Kultur etxeko auditorioan, gaztelaniaz. Virginia Imazen eskutik. Sarrerak: 3 euro.

Hilak 27, igandea, 19:30ean

- **'No te preocupes querida' filma.** Kultur etxeko auditorioan, gaztelaniaz. Sarrerak: 6 euro.

Oharra: TXINTXARRI-ren webgunean kontsulta dezakezue egitarau osoa.



GARI GARAIALDE

Ane Labaka, Durangon gertatzen denaren zain

Bertsolari Txapelketa Nagusiko finalurrekoetan ari da Ane Labaka lasarteoriatarra. 24 bertsolari sailkatu dira fase horretara, eta lehen itzuliko saioak jokatzen ari dira: Irunen jardun zen, beste bost bertsolariarekin batera, eta 631,5 puntu bildu zituen. Bigarren itzulira igaroko den ala ez jakiteko, Durangoko finalurrekoan gertatzen denari erreparatu beharko dio Labakak, izan ere, sailkapen orokorreko azken sei sailkatuak kanpo geratuko baitira. Bizkaiko herri horretan abestuko dutenetako batek puntu gutxiago zakuratuz gero, aurrera egingo du herritarrek.



TXINTXARRI

Ordu eta erdiko abentura

Julio Verne-ren liburu ezagunetik abiatuta, Glu Glu taldeak *Munduari itzulua 80 egunetan* antzezlan ekarri du kultur etxeko auditoriora. Aretoa bete duten familiak umorez eta musikaz betetako ikuskizunarekin bidaiari eraman dituzte, 80 minutuz, lekutik mugitu gabe: Txina, Saharako basamortua, Mosku, Ginea eta beste hainbat toki ezagutu dituzte.

Maddi Zaldua

Formol Laborategiak *Album* antzezlaren emanaldia egingo du bihar, hilak 12, Manuel Lekuona Kultur Etxeko auditorioan, 20:00etan. Intza Alkain Iburguren (Lasarte-Oria, 1995) herritarra da antzele eta sortzaileetako bat, Mikel Iburguren eta Edurne Azkaraterekin batera. Saio berezia izango da gainera Lasarte-Oriakoa; urtebete beteko baita *Album* estreinatu zutenetik.

Ikusmina mantentze aldera, ez dugu gehiegizko informaziorik zabalduko, baina aurreratu du ikusleek ez dutela hasiera, korapiloa eta amaiera duen istorio baten berri izango. Ostruka eta arrainontzi artean, *Millenial* belaunaldiaren iruditeria batean barrena bidaiatzeko aukera eskainiko die obrak.

Zer da 'Album'? Zer topatuko du ikusleak Manuel Lekuonako oholtza gainean?

Antzezlari bat da. Gazteon gaineko ikerketa bat burutu genuen, eta horri forma eszenikoa eman diogu, hori eraman dugu taulagainera. *Millenial* izenarekin ezagutzen den belaunaldiaren iruditeria bat topatuko du ikusleak; horiek bizi dituzten egoerak, kezak eta beldurrak taularatuko ditugu. Ikusleak ez du hasiera, korapiloa eta amaiera duen istorio lineal bat jasoko, baina bai argazki asko.

Hortik 'Album' izena?

Bai. Iruditeria hori erakutsiko dugunez, antzezlari izen hori eman diogu. Ziurrenik, gainera, irudi horietako batekin edo bestearekin identifikatuko da ikuslea. Bakoitzak bere bidaiaria egingo du album horretan barrena.

Gehiegizko informaziorik aurreratu gabe, esan dezakegu iruditeria horretan, bereziki bi elementuk hartzen dutela garrantzia berezia, ezta?

Bai. Antzezlanean jokatzeko dugu metafora eta sinbologia askorekin, eta hor, garrantzia berezia hartzen dute ostrukek eta arrainontziekin. Beste elementu batzuk ere badaude, baina horiek dira bereizgarrienak.

Ostrukek, kontatu nahi genuenarekin bat egiten duten ezaugarri ugari dituztela konturatu ginen, eta uste dut ikuslea identifika daitekeela animalia horrekin. Informazio

"Bakoitzak bere bidaiaria egingo du, 'Album'-en zehar"

INTZA ALKAIN IBARGUREN SORTZAILE ETA AKTOREA

Urtebeteko epean, hamaika antzokitako oholtzatan antzeztu dute 'Album'. Oraingoan, Manuel Lekuona Kultur Etxekoan emango du bere lana Formol Laborategiak, larunbatean, hilak 12. Emanaldi berezia izango da; urtebete beteko baitu, estreinatu zutenetik



Intza Alkain Iburguren herritarra da Formol Laborategiko kideetako bat, eta 'Album' antzezlaren sortzailea ere bai. TXINTXARRI

gehiagirik eman gabe, esan dezakegu hegan egin ezin duten hegaztiak direla, eta handiak eta ederrak izan arren, baldar itxura dutela. Pentsatzen da baita ere lurrean egiten dituzten habiak euren buruak ezkutatzeko egin ohi dituztela, baina hori ez da hala; arrautzak gordetzeko egiten dituzte.

"GAZTEOTAZ OHOLTZAN GUTXI HITZ EGITEN ZELA OHARTU, ETA HORTIK ABIATU GINEN"

Arrainontzia, berriz, kutxa garden bat da, eta horiez inguratuta bizi garela uste dut. Elementu hori zergatik erabiltzen dugun ere ikusiko dute.

Zergatik erabaki zenuten gai hori taularatzea?

Idea zehatzik gabe bildu ginen, duela bi urte, zerbait egiteko gogo hutsez. Edurne, Mikel eta hiruok Artedramak antolatzen dituen Aulestiko topaketetan elkartu ginen, eta bertan piztu zitzaigun zerbait sortzeko gogo. Konturatu ginen gazteotaz gutxi hitz egiten dela oholtzan, eta sentitu genuen horretaz, gutaz, aritzeko nahia, eta agertoki batetik esateko

dugunaz pentsatzen hasita erabaki genuen bide hori hartzea. Askotan definitzen gaituzte prekario eta frustrazioari intolerante gisa, bizitzan galduta gaudela entzun behar izaten dugu behin eta berriz... Baina, horren aurrean, zer dugu guk gutaz esateko? Hausnarketa horretatik abiatuta osatu dugu gure sormen lana. Jartzen zaizkigun etiketa horiek guztiak hartu, eta horiei tiraka guk esateko duguna esanaz osatu dugu *Album*.

Nolakoa izan da sortze prozesua?

Bildu eta mahai lana egin genuen lehenengo; gaia topatu eta horren inguruan zer kontatu nahi genuen

aztertu genuen. Behin hori eginda, hainbat dirulaguntza eskatu genituen, eta espazioen eskaerak ere egin genituen. Bide horretan, Tabakalerako sormen gunearen erabilera lortu genuen, eta orduan hasi ginen material eszenikoa sortzen. Horretan ari ginela, Zubi-Euskal Antzerkiaren Sortzaile Berri Laguntzen-egitasmoaren irabazleak izan ginen. Horrek bermatu digu emanaldi zirkuitu bat, hau da hainbat antzokitako *Album* eman ahal izatea. Gasteizko Udalaren beste dirulaguntza bat ere lortu genuen, eta horri esker aholkularitza bat jaso genuen. Izugarri miresten ditugun Metrokoadroka Sormen Laborategiko lagunengana jo genuen horretarako, eta sekulako babesa eman ziguten. Egiten ari ginenarekin jarraitzeko bultzada eman ziguten; oso beharrezkoa izan zen bide onetik gindoazela berresteko.

Gainera, hasieratik izan dugu garbi gure sormen lana beste gazte sortzaileekin harremanetan jarriaz egin nahi genuela, eta hala egin dugu. Besteak beste Itu Bandak sortutako testu batzuk erabili ditugu *Album* eratzeko, eta agertokiko argiteria prestatzeko, adibidez, Miriam Ubanetengana jo genuen.

Zein rol jokatu duzue sortzaile bakoitzak?

Hiruok dugu izaera sortzailea eta denak aritu gara material eszenikoa sortzen. Baina, Albumen kasuan, Edurne hartu du kanpo begirada eta lanarekiko zuzendaritzaren ardura. Horretan aritzeko gogo zuen eta Mikel eta biok aktore lanak hartu ditugu gure gain. Eta, noski, hau guztia aurrera eramateak ere eskatzen du lan administratiboa, eta hor bai, bakoitzak gure lan eta ardurak izan ditugu.

Uste dut prozesua nahiko naturala izan dela, baina lehen unetik argi izan dugu talde horizontal bat izango ginela.

Jendaurrean, beraz, Mikel eta zu ikusiko zaituztegu.

Hori da, bai, eta gurekin batera bestelako hainbat elementu ere bai; ikus-entzunezkoak esate baterako.

Nola moldatzen zarete taula gainean elkarrekin?

Oso ondo. Eszenikoki, bisualki oso ezberdinak gara. Mikel altua eta handia da, eta, ni, aldiz, txikia, eta irudi soil horrek gauza asko esaten ditu. Erraz topatu dugu elkar hasieratik, baina asko galdu

behar izan gara elkar topatzeko, eta horretarako pertsona egokiena izan da Mikel. Ez da batere erraza eszenan ezer egin gabe egotea, eta hori ere bilatu nahi izan dugu. Zer daukat esateko ezer egiten ari ez naizenean edo ezer esateko ez daukadanean?

Euskal Aktoreen Batasunak antolatzen duen Besarkada Sarietan izendatua izan zinen 'Album' lanagatik. Nola bizitu zenuen hori?

Ez genuen espero, eta pluralean diot, izendapen hori *Album*-i egin zaion aitortza txiki bat izan dela uste baitut. Hautagaien artean egon izanak esan nahi du jendea etorri dela gure lana ikustera, eta gustatu zaiola, eta horrek eman zidan poz gehien. Izendapen horrek ere berresten du egiten ari garena ongi egiten ari garela, eta bide horretan jarraitzeko bultzadaxoa ere eman digu. Sariketa horrek erakusten du sare bat badagoela, mundu horretan gabiltzanok, elkarren lanak ikustera joaten garela eta baita horiek babesteko nahi badugula. Elkarririk erekoizimendu bat egitea da.

Azpimarratu nahi dut gainera, euskarazko lanak bertan egoteak garrantzia duela niretzat.

Euskarazko lanak aipatu dituzula, zein egoera bizi du euskarazko antzerkigintzak?

Nire iritziz oso osasuntsu dago. Sormen lan asko egiten dira eta euskarazko antzerkia egiten duten talde eta konpainia asko daude. Egia da, ordea, lan hori guztia ez dela ikusten. Hori da

"EUSKARAZKO ANTZERKIGINTZA OSASUNTSU DAGOELA USTE DUT; SORMEN LAN UGARI DAGO"



Mikel Ibarburen (ezkerrean), eta Edurne Azkaratekin (erdian) batera sortu du Intza Alkainek (eskuinean) Formol Laborategia eta, horren barruan, 'Album' antzezlan. BIDEOLAN

betiko arazoa. Programatzen dena ikustea besterik ez dago.

Euskal Herrian gaztelaniazko sormen lan gutxiago eratzten dira euskarazkoak baino, eta hala eta guztiz ere, oholtez ez dute errealitate hori islatzen. Denok izan dezakegu lekua. Oreka bilatzea da kontua.

Kulturaren artean egiten den inbertsio eskasa ere ezin dugu aipatu gabe utzi; gehiago inbertituko balitz eta aukera gehiago emango balitzaizkio, egoera ezberdin batean geundek.

Larunbateko emanaldia, gainera, arrazoi bikoitzagatik izango da berezia. Batetik zure herrian oholtzaratuko duzulako 'Album', baina baita ere urtebete beteko delako lan hori estreinatu zenuenetik.

Bai hori da. *Album*-en urtebetetzea eguna izango da, eta aitzakia hori baliatuko dugu emanaldi ostean ospakizun txiki bat egiteko. Kultur etxeko kafetegian izango da, luntx txiki bat prestatuko dugu, eta bertaratzen diren ikusle guztiak daude horra gonbidatuta.

Eta etorkizunari nola begiratzen diozue? Gazteak antzokietara erakartzeko helburuarekin ere sortu zineten. Bide beretik jarraitzeko asmoa duzue?

Hori zen gure erronketako bat, eta uste dut lortzen ari garela. Ikusle askok esan digu gazte pila datozela gure emanaldietara, eta, hori gure helburuetako bat lortzen ari garen seinale da. Guk ere badugu irudipen hori, eta alde horretatik oso pozik gaude. Topatu dugu antzokietara joateko ohiturarik ez duen

jendea, eta esan izan digute aspaldi antzoki batera ez joanagatik, oso ondo pasa dutela. Gazteak erakartzeaz gain, gozaraztea da xede; horrelako espazioetan ere ondo pasa daitekeela aldarrikatu nahi baitugu.

"BESARKADA SARIETAKO IZENDAPENA, 'ALBUM'-I EGIN ZAION AITORTZA BAT DA"

"Konturatu naiz hobeto dela akatsekin hitz egitea, ez erabiltzea baino".

Aitor Revidiego

HITZETZ EKITEKO GARAIA

EMAN IZENAI
euskaraldia.eus



2022ko AZAROAREN 18tik
ABENDUAREN 2ra

eta ekin!



azaroaren 18tik abenduaren 2ra

EUSKARALDIA

sentitu  prestatu... 

Azaroaren 18tik abenduaren 2ra, Euskal Herri osoan Euskaraldia ospatuko da, Lasarte-Orian ere bai. Behin motibazioa landuta eta gure burua prestatuta, euskaraz hitz egiteari ekiteko garaia izango da!

Motibazio-kolpea jaso eta hizkuntza-ohiturak aldatzeko prestatu ondoren, martxan jartzeko garaia da! Azaroaren 18tik abenduaren 2ra Euskaraldiaren 3. edizioa ospatuko da Euskal Herri osoan, eta Lasarte-Orian ere bai.

15 egunetako ariketa sozial honetan, herritarrek ahobizi eta belarriprest rolak jokatuko dituzte, eta entitateek, berriz, ariguneak aktibatuko dituzte, euskaraz eroso aritzeko espazioak. Hala, erresistentziak alde batera utziz, gure konfort-eremutik atera eta kolektiboki hizkuntza-ohiturak aldatzeko ariketa egingo dugu.



TXAPA JASO

Noiz?

Asteazkena 16 10:00-13:00 eta 16:00-20:00

Osteguna 17 10:00-13:00 eta 16:00-20:00

Non?

Okendo plazan



HASIERA EKITALDIA EUSKARALDIA

Data: 2022-11-18

Ordua: 19:00-20:00

Lekua: Manuel Lekuona Kultur Etxean

Txapa jartze kolektiboa egingo dugu! Ekarri zure txapa





Ongi begiratu postontzian, esku artean duzun aldizkariarekin batera *Eta ekin!* fasearen kartela jasoko baituzu, *Sentitu* eta *Prestatu*-ren afixen ondoan jartzeko. Ez kezkatu eguraldiagatik, iragazgaitza baita papera! Lagun gaitzazu herria girotzen!



HARTU 'ERNASA', ETA EKIN! SALDA BADAGO!

Egunotan Antonio Mercero guneko "tenplura" bertaratu diren herritarrek aholku bikainak jaso dituzte Euskaraldiari ekiteko, Bea Egizabal eta Intza Alkain guruzaleen eskutik. Umoretik, hilaren 18an hasiko den hizkuntza ohiturak aldatzeko ariketa sozialari buruzko saioak eman dituzte. Ikus-entzuleak barrez lehertzen jartzearekin batera, norberaren baitan dagoen euskara azaleratzen lagundu diete, barnetik kanpora ateratzeko ariketa batekin.

Ahobizi eta belarriprestok, ariguneetako kideok, euskotxitok, gogoratu: hartu 'ernasa' (euskararen arnasa), eta ekin! Salda badago!



Buruntzaldea IKTko kideak, helburuak betetzen

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Neguko Ligako bigarren jardunaldiari egin diote aurre, Maialen Chourraut kiroldegian. Infantil mailako igerilarietako batzuk txapelketetarako 'giltzak' eskuratu dituzte

Txintxarri

Maialen Chourraut kiroldegiko igerilekuak Neguko Ligako bigarren saioa hartu zuen, hilaren 5ean. Buruntzaldea IKTko kideek jardunaldia antolatzeaz gain, infantil, junior eta absolutu mailako probetan lehiatu ziren. Igeriketa taldeko hamahiru gaztek parte hartu zuten eta gehienek euren helburua lortu zuten; guztien artean, hamabost marka pertsonal ondu zituzten (ikus ondoko koadroa).

Taldeko prestatzaileek azaldutakoaren arabera, Gipuzkoako Neguko Txapelketarako balagarriak diren gutxienekoak egiteko gai direla erakutsi dute infantil kategoriako igerilariak: "Gutxienekoak oraindik ez dira ofizialak baina maila horietan, *giltza* izenez ezagutzen ditugun gutxienekoak egin behar dituzte Gipuzkoako zein Euskal Herriko neguko txapelketetan parte hartzeko". Ondorioz, Mayi



Neguko Ligako bigarren jardunaldiako probetako bat. TXINTXARRI

Gorostegui, Nora Miguelezek eta Amaur Iparragirrek 400 m. lau estilo probetan egindako markak "seguruenik" Gipuzkoako Neguko Txapelketarako txartela eman dietela aurreratu dute taldeko ordezkariak.

Junior eta absolutuen kasuan, forma fisiko egokira iristea zailagoa izaten dela jakitera

